



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

HIZKUNTZA MINORIZATUAK ESKOLAN:

“Hizkuntza gutxituen erronka” proposamena

Egilea: Aldazabal Galdeano, Larraitz

Zuzendaria: Etxebarria Lejarreta, Aintzane

Leioan, 2017ko maiatzaren 31n

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1.Oinarri teorikoa.....	4
1.1 Hizkuntza minorizatuak.....	4
1.1.1 Definizioa	4
1.1.2 Hizkuntza minorizatuaren egoera	5
1.1.3 Instituzioen aldetik ematen zaien garrantzia	8
1.1.4 Hizkuntza minorizatuaren erabilera eta ezagutza sustatzeko egiten dena	9
1.2 Hizkuntza minorizatuaren lanketa eskola eremuan	11
1.3 Ikus-entzunezko baliabideak hezkuntzan: dokumentala.....	12
2. Proposamen didaktikoa	14
2.1 Heziberri 2020 oinarritzko hezkuntza curriculumarekin lotura.....	14
2.1.1 Oinarritzko zehar konpetentziak	14
2.1.2 Oinarritzko diziplina barneko konpetentziak.....	15
2.1.3 Etapako helburuak.....	16
2.2 Baliabidea sortzeko prozedura	18
2.3 Proposamenaren atalak	20
2.3.1 Dokumentala	20
2.3.2 Jardueren koadernoak	22
3.Ondorioak.....	23
4.Erreferentzia bibliografikoak	24

ERANSKINAK

1.Eranskina: Story board	27
2.Eranskina: Elkarrizketak euskaratuta.....	33
3.Eranskina: Youtubeko kanaletako erabiltzaileei eginiko baimen eskaera.....	42
4.Eranskina: Dokumentala ikusi aurretik egiteko jarduera	46
5.Eranskina: Dokumentala ikusi bitartean egiteko jarduera	48
6.Eranskina: Dokumentala ikusi ondoren egiteko jarduera	50

HIZKUNTZA MINORIZATUAK ESKOLAN:**“Hizkuntza gutxituen erronka” proposamena****Larraitz Aldazabal Galdeano**

UPV/EHU

Lan honen helburua Estatu Espainoleko hizkuntza minorizatuaren egoeraren ezagutzan sakontzea da, era berean, hizkuntza hauekiko kontzientzia landuz. Horretarako, lau hizkuntza minorizaturen hiztunak ageri diren dokumentala sortu da, hala nola, euskara, galiziera, asturiera eta katalana islatuz. Horrekin batera, lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzenduriko proposamen didaktikoa aurkeztu da, jardueren koaderno eran. Bertan, hiru fase ezberdin bereizi daitezke: dokumentala ikusi baino lehen, bitartean eta ondoren. Fase bakoitzeko jarduera bana proposatu da, ikasleek era kolektiboan zein banaka burutzekoak. Lanarekin bukatzeko, sortutako baliabidearen inguruko ondorioa idatzi da.

Hizkuntza, gutxiespena, kontzientzia, dokumentala, komunikazioa

El objetivo de este trabajo es profundizar en el estado de las lenguas minorizadas del Estado Español, mientras se trabaja la conciencia hacia éstas. Para ello, se ha creado un documental en el cual aparecen cuatro hablantes de lenguas minorizadas, así como, el euskera, el gallego, el asturiano y el catalán. Junto a ello, se presenta una propuesta didáctica, en forma de cuaderno de actividades, dirigida a los alumnos de 6º de primaria. En el cuaderno, se distinguen tres fases diferentes: antes de ver el documental, mientras y después. Se propone una actividad en cada fase, y se llevarán a cabo de manera colectiva o individual. Para acabar con el trabajo, se ha escrito la conclusión sobre el recurso que se ha creado.

Lengua, infravaloración, conciencia, documental, comunicación

The main goal of this paper is to explore the minority languages of the Spanish State, while working with the consciousness towards them. In order to provide a wider perspective to the topic and reflect the Basque, Galician, Asturian and Catalan languages, a documentary in which four minority language speakers' take part has been created. Alongside the documentary, a didactic unit addressed to students of sixth course of primary school has also been attached. This didactic proposal will be based on an activity notebook that distinguishes three main phases: before watching the documentary, while watching it and after watching it. In each phase, a group or individual activity has been proposed. To conclude with the paper, a general conclusion about the created resource has been written.

Language, undervaluing, consciousness, documentary, communication.

Sarrera

Hizkuntza, guztion ahotan darabilen hitzezko adierazpidea da, gizakiok bata bestearekin komunikatzeko erabiltzen dugun tresna nagusietako bat. Munduan zehar hizkuntza kopurua zehaztea zaila bada ere, esan ohi da 6.000 inguru existitzen direla. Baina, denek al dute garrantzi bera? Denek jasotzen al dute protagonismo bera? Bada, erantzuna oso erraza da, ez. Badaude kopuru handi horretan, gutxiespena jasotzen duten hizkuntzak, dagozkien estatuak diru-laguntza eskasa eskaintzen dielako, ofizialtasun eza dutelako edota jasotzen duten onarpen maila txikia delako, besteak beste.

Hainbat arrazoiengatik izan daiteke hizkuntza bat gutxietsia, hau da, hizkuntza minorizatu, eta horietatik ohikoena boterea da. Boterea duenak, bere interesetan oinarrituriko legeak eta arauak ezarriko ditu, eta hauek, giza-talde batentzat onuragarriak suertatzen diren bitartean, beste batentzat kaltegarria izan daitezke.

Gauzak horrela, gizarte globalizatu honen errealitate linguistikoa eskolara eraman nahi da, hizkuntza minorizatuaren existentzia eta hauen egoera zein den ikusarazteko. Horretaz gain, hizkuntza hauekiko kontzientzia lantzea eta hizkuntza horien hiztunekiko enpatia sortzea bilatzen da.

Aurkeztuko den lan hau, beraz, hizkuntza minorizatuaren oinarrituta dago, Estatu Espainolean gailentzen diren hizkuntza minorizatuaren, zehatz mehatz. Lehen hezkuntzako 6.mailara egokitutako baliabide didaktiko bat sortu da, kasu honetan, dokumentala. Bertan, lau hizkuntza ezberdin mintzo dituzten hiztunak ageri dira, bakoitzak bizi duen esperientzia azalaraziz. Modu honetan, testuinguru hurbilean existitzen diren hizkuntzen inguruko ezagutzan sakontzeko aukera edukiko dute ikasleek eta era berean, elkarrizketatuak diren pertsonen azalean jartzeko aukera helaraziko zaie, arestian aipatu den legez, enpatia landu asmoz.

Baliabide honetaz gain, proposamen didaktikoa aurkezten da. Proposamen hau jardueraren koaderno batean oinarrituta dago eta dokumentala baliabidetzat hartuko da ikasleek jardueraren hauek burutu ditzaten. Jarduera koadernoaren hiru fase ezberdinetan bereizita ageri da: dokumentala ikusi baino lehen burutzeko jardueraren, dokumentala ikusi bitartean burutzekoa, eta azkenik, dokumentala ikusi ondorengoa.

1. Oinarri teorikoa

Proposamena sortzeko, oinarri teorikoa osatu da, zenbait autoreren hitzei erreferentzia eginez. Bertan, hizkuntza zer den definitzeaz gain, gai nagusiari hertsiki helduko zaio, hizkuntza minorizatuari, hain zuzen ere. Aurkitzen diren egoeraren berri emango da, zenbait datutan oinarrituz, eta instituzioen aldetik ematen zaien garrantziaz ere idatziko da, abian jarritako protokoloak edota deklarazioak azalduz. Estatu espainoleko lau hizkuntza minorizatutan zentratuz, hauen erabilera eta ezagutza sustatzeko egiten dena ere azalduko da. Bestalde, eskola eremuari begira, hizkuntza minorizatuaren gaia nola lantzen den aurkeztuko da eta bukatzeko, hezkuntza alorrean jarraituz, ikus-entzunezko baliabideek duten garrantzia azpimarratuko da.

1.1 Hizkuntza minorizatuak

Hizkuntza minorizatuak, edo gutxituak, estatuaren babesik ez dutenak, edota babes gutxi jasotzen dutenak direla adierazi dute Uranga eta lankideek (2004). Gaineratu dute, hizkuntza hauek ez direla ofizialak, estatus hori besteren batek jasotzen baitu.

Hurrengo lerroetan, hizkuntza hauei buruzko informazioan sakonduko da.

1.1.1 Definizioa

Hasteko, hizkuntza zer den definitu beharra dago, izan ere, hizkuntza minorizatu bat zer den jakiteko ezinbestekoa da jakitea zeri egiten dion erreferentzia.

Zarraga-k eta lankideek argitaratutako *Soziolinguistika eskuliburuan* hizkuntzaren definizio zehatza irakur daiteke: “giza talde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea da, hau da, zeinu-sistema bat” (2010:26).

Era berean, Euskaltzaindia-k definizio berbera eman dio hizkuntzari (2016): “Gizatalde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea”.

Padilla-k eta Recarte-k (2015) euren lanean adierazi duten moduan, munduan zehar milaka hizkuntza ezberdin daude, baina ezinezkoa da jakitea zenbatekoa den kopuru zehatza. UNESCO-k aurkeztutako azken txosten batean 6000 hizkuntza baino gehiago dagoela baieztatu da eta horietatik 3000 hizkuntza baino gehiago galtzeko arriskuan daude.

Behin hizkuntza zer den definituta, eta horiei buruzko datu gutxi batzuk emanda, gai nagusiari helduko zaio, hizkuntza minorizatuari, hain zuzen. "Hizkuntza minorizatu" kontzeptuari definizio bat baino gehiago eman zaio, jarraian aipatuko direnak.

Manterola-k, Berasategi-k eta Idiazabal-ek (2011) argitaratutako liburuan Blanchet-i erreferentzia egin diote. Blanchetek bere lanean hainbat definizio aditzera eman ditu.

Hasteko, Akoun eta Ansard-i erreferentzia eginez (1999), gehiengo taldetik bereizitako azpitaldea dela adierazi du, talde menderatzailearekin erlazio handia duen taldea dela azpimarratuz. Kopurua ez dela funtsezkoa adierazi du, boterearen banaketa eta estatusaren tratamendu ezberdina goraipatuz.

Bestalde, Ferréol-en eta Jucquois-en hitzei erreferentzia eginez (2004) honakoa dio: talde bat gutxiengoa da kideek sozialki gutxietsia eta baliogabetua dagoen nortasuna duenean. Horretaz gain, Poche-k (2000) hauxe dio: estatuan ofiziala ez den hizkuntza, eremu jakin batera mugatzen den pertsona talde batek mintzatua eta egonkortasuna duena da.

Azkenik, Coyos-ek (2010) erreferentzia egiten dio hizkuntza gutxituari. Bere esanetan, hizkuntza-gatazka egoeran dagoen eta hizkuntza menderatzailearen esku hainbat funtzio galdu dituen hizkuntzari deritzo.

Azken definizio bat emateko asmoz, Zarragak eta lankideek honako hau adierazi dute: "hizkuntza-gatazka egoeran, hizkuntza menderatzailearen esku hainbat esparru eta funtzio galdu dituen hizkuntza" (2010:166).

1.1.2 Hizkuntza minorizatuaren egoera

Padillak eta Recartek (2015) hizkuntza aniztasunaren inguruan egindako lanean azaldu dute munduan zehar milaka hizkuntza minorizatu aurkitu daitezkeela, herrialde ezberdinetan, hala nola, Ameriketako Estatu Batuetan, Txinan, Mexikon, Alemanian, Belgikan, Grezian ... Gutxiespen honen arrazoi nagusia egoera politikoa dela adierazi dute, izan ere, erregimen politikoek hizkuntza baten ofizialtasuna babestea ala ez erabaki baitezakete. Ideia honekin elkarloturik, Manterolak et al. (2011) Skutnabb-Kangasi-ren teoria aipatu dute eta azken honek baieztatu du azken mendeetan hil diren hizkuntza askok politikaren eragin zuzena jasan dutela.

Europako testuingurura hurbilduz, gaur egun Europar Batasunak 23 hizkuntza ofizial ditu, baina 46 milioi europarrek, hau da, biztanleriaren %10 inguruk beste 60 hizkuntza minorizatu erabiltzen dituzte. Hala ere, Europar Batasuneko 9 Estatuk bakarrik kontsideratzen dute koofizial hizkuntza minorizatu bat (Padilla eta Recarte, 2015). Uranga eta besteren (2004) lanean Europako hizkuntza gutxituen zerrenda bat aurkitzen da. Bertan zenbait datu agertzen dira, hala nola, hizkuntza zein den, autoglotonimoa (hiztunek euren hizkuntzari emandako izena), herrialdea eta azkenik, hiztun kopuruak (azken hau autore ezberdinen datuak bilduz).

Hona hemen taula baten bidez adierazita:

Hizkuntza	Autoglotonimoa	Lurraldea	Hiztunak (Sanmartí 1996)	Hiztunak (Grimes 2000)	Hiztunak (Price 2000)
Aragoiera	Aragonés	Espainia	5.000	11.000	Gaztelan-iarren barruan
Aranera	Aranés	Espainia	4.000	3.800	3.100
Asturiera	Asturiano	Espainia	300.000	100.000	Gaztelan-iarren barruan
Bretainera	Brezhoneg	Frantzia	1.000.000	500.000	250.000
Erromantxera	Rumantsch	Suitza	65.000	40.000	50.000
Euskara	Euskara	Espainia, Frantzia	780.000	656.000	680.000
Faroera	Føroyskt	Danimarka	40.000	47.000	48.000
Frisiera	Frasch, frysk	Alemania, Herbehereak	420.000	721.000	300.000
Friulera	Furlan	Italia	625.000	600.000	500.000
Gaelera, Eskoziakoa	Gàidhlig	Erresuma Batua	80.000	88.892	68.000
Gaelera, Irlandakoa	Gaeilge	Irlanda, Erresuma Batua	1.200.000	260.000	1.100.000
Galesera	Cymraeg	Erresuma Batua	500.000	508.000	500.000
Galiziera	Galego	Espainia	2.300.000	3.173.000	

Ijitoera (gypsy)	Rromaní	Europar zehar		1.500.000	
Kareliera	Karjalan	Finlandia, Errusia	170.000	10.000	65.000
Katalan	Catalá	Espainia, Frantzia, Andorra, Italia	6.720.000	6.624.000	
Kornubiera	Kernewek	Erresuma Batua	1.000	3.000	50
Korsikera	Corsa, corsu	Frantzia	200.000	281.000	120.000-150.000
Ladinera	Ladin	Italia	27.500	30.000	30.000
Livviera	Livvin kieli	Finlandia, Errusia			
Luxenburgera	Luxemburgish	Luxenburgo	350.000	250.000	275.000
Maltera	Malta	Malta		300.000	376.000
Mirandera	Mirandés	Portugal	15.000	10.000	10.000
Mocheno	Bersntoleresch	Italia		1.900	
Okzitaniera	Occitan	Frantzia, Italia, Espainia, Suitza	1.075.000	758.000	750.000
Samiera	Saemien	Finlandia, Norvegia, Suedia, Errusia	55.700	28.000	34.000
Sardiera	Sardu	Italia	160.000	1.500.000	1.600.000
Sorbiera	Serboscina	Alemania	70.000	69.000	67.000
Walserera	Walter	Italia, Suitza, Austria, Liechtenstein		20.000	
Yiddish	Yidish; Mame-Loshn	Hainbat tokitan			
Zimbriera	Zimbrisch	Italia		2.200	

1.taula: **Mendebaldeko Europako hizkuntza gutxituak** (Uranga, eta lankideak, 2004)

1.1.3 Instituzioen aldetik ematen zaien garrantzia

Europako hizkuntza minorizatuak direla eta, Etxeberria-k (2002) hizkuntza hauek defendatzeko asmotan martxan jarritako hainbat deklarazio eta dokumentu aipatu ditu. Bere esanetan, “1975etik aurrera, Europako hiru erakunde nagusiek (Europako Elkar-teak, Europako Kontseiluak eta Europako Segurtasun eta Elkarlaneko Konferentziak) 50 deklarazio handi baino gehiago egin dituzte hizkuntz eta hizkuntza gutxiengoei buruz” (Etxebarria, 2002: 36). Hala, Sanmartí-ren hitzak aipatu ditu, eta hauxe adierazi du: “erantsi behar dira Europari buruz hitz egiten duten izaera unibertsaleko beste hainbat dokumentu ere, hala nola, NBE-renak, Giza Eskubideei buruzkoak edota UNESCO-renak” (Etxebarria, 2002: 37).

1992an hizkuntza erregionalen edo hizkuntza gutxituen Europako Karta idatzi zen, Europako Kontseiluaren eskutik. Karta honen funtsezko helburua honako hau da: lotura estuagoak lortzea kideen artean, horrela ondare komuna diren ideal eta printzipioak babestu eta sustatzeko (Etxeberria, 2002).

1996ra salto eginez, beste deklarazio garrantzitsu bat idatzi zen Bartzelonan: Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (Hizkuntza eskubideen behatokia).

Deklarazio hau gobernuz kanpoko hainbat erakunde eta organizaziok sinatu zuten, eta azaldu zuten moduan, asmo nagusia hizkuntza taldeen eskubide pertsonalak eta kolektiboak defendatzea zen, horien guztien elkarrenganako errespetua eta tratu orekatzaila defendatuz gutxiespen egoeran aurkitzen diren hizkuntzentzat edo hizkuntza taldeentzat (Etxeberria, 2002).

Gaur egunera hurbilduz, 1996an Bartzelonan aurkeztutako Deklarazioan oinarriturik, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa dago indarrean. 2016.urtean aurkeztutako protokolo hau gizarte eragileen proposamenarekin eta Batzorde zientifiko baten aholkuekin osaturikoa da. Bertan, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuak egon daitezten hartu beharreko neurriak aurkeztu dira. Hitz gutxitan, protokoloa hizkuntza berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dauden hizkuntza garapena bermatzeko dokumentua da. Lantzen dituen printzipioak eta baloreak honakoak dira: giza eta hizkuntza eskubideak, elkarbizitza eta bakea, hizkuntza aniztasuna eta berdintasuna (Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa).

1.1.4 Hizkuntza minorizatuena erabilera eta ezagutza sustatzeko egiten dena

Atal honetan, lau hizkuntzatan zentratuko da, hala nola, euskararen, galizieraren, asturieraren eta katalanean. Hizkuntza horien erabilera eta ezagutza sustatzeko abian dauden edo egondako estrategiak, planak, programak ... azalduko dira.

Euskara sustatzeko, hainbat plan eta estrategia dago. Horietako bat Euskara Sustatzeko Ekintza Plana da, 2015.urtean argitaratutakoa (Euskararen Aholku Batzordea, 2015). Liburuan aipatzen den legez, euskaren ezagutza erabilera baino handiagoa da, beraz, hor dago erronka nagusia. Honenbestez, ekintza planaren helburu nagusia euskararen erabilera indartzea da. Honetaz gain, plan honek lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatuko ditu, horrela, egunerokotasunean herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezten.

Beste programa bat, Lanhitz izenekoa da, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritakoa. Sektore pribatuan zentratzen da eta helburu nagusia enpresetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko modua proposatzea da, egungo kudeaketa-sistemak jarraituz, euskara entitatean txertatuz, egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz eta borondatean eta baliabideetan oinarrituz (Kultura eta hizkuntza politika saila).

Eusko Jaurlaritzak diseinaturiko beste plan bat herri administrazio eta ente publikoetan euskararen erabilera normalizatzean oinarritzen da, "Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiaren V. plangintzaldia" izenez ezaguna dena. Plan hau 2013 eta 2017 urte bitartean indarrean da (Kultura eta hizkuntza politika saila).

Galizierari dagokionez, "Plan estratégico de juventud de Galicia 2014-2016" izenez ezaguna den plana aurkitzen da. Plan honetan hamaika neurri ezberdin ageri dira testuinguru sozial ezberdinetan galiziera sustatzera bideratzen direnak (Redacción de Noticias Valdeorras, 2016). Galiziako Xuntak beste plan bat sortuko duela aditzera eman du. Plan honen izena "Plan de dinamización de la lengua gallega entre la juventud" da eta izenak berak adierazten duen legez, gazteei zuzenduriko plana izango da. Honen helburu espezifikoak, galiziar hitzunen artean galizieraren erabilera sustatzea izango da, baina, bereziki, gazteen artean ematen den erabileran jarriko du enfasia. Beraz, gazteen testuinguruan galizieraren presentzia sustatzea eta indartzea izango du jomugatzat.

Bestalde, 2004.urtean “Plan Xeral de Normalización” sortu zen, Parlamentuko partaide guztien adostasunaren ondorioz. Plan hau gizarteko sektore ezberdinetako 200 espezialistek sortu zuten, eta bere baitan Galizian egunerokotasunean galegoz aritzeko 400 neurri baino gehiago batzen ditu (Real Academia Galega).

Asturieraren inguruan, badaude hizkuntza hori bultzatzeko asmotan diseinatutako planak, edota boletinak.

1998ko Asturiaseko printzerriko boletin ofizialean, asturieraren erabilera eta ezagutza bultzatzeko zenbait artikulua daude, 18, hain zuzen ere. Horietan, erreferentzia egiten zaio hizkuntza tradizionalari, administrazioan duen erabilerrari, argitalpenei, udaletxeei eta irakaskuntzari, besteak beste (<https://sede.asturias.es>).

Bestalde, 2005 eta 2007 urte bitartean martxan jarritako “Plan para la normalización social del asturiano” izeneko plan bat dago eta lortu nahi dituen helburuak honakoak dira: administrazioen partetik erabilpen instituzionala eta publikoa sustatzea era mailakatu batean, udaletxe asturiarrek martxan jartzen dituzten neurri linguistikoekin elkarlanean aritzea, hedabide publiko zein pribatuetan bable edo asturieraren erabilera sustatzea, hezkuntzan maila guztietan asturieraren irakaskuntza ematea, Asturiasen toponimia tradizionala zehaztea eta ofizial bilakatzea bere erabilera orokortuz, bertako hizkuntzaren inguruko informazioa garatzea, asturieraren erabilera bultzatzea alderdi ezberdinetan (enpresetan, kirolean, sindikatuetan, kulturean, artean, ...) eta azkenik, asturiera sustatzea adierazpen kultural gisa. Plan honek, 68 ekintza ezberdin deskribatzen ditu (http://www.asturnews.com/publicidad/plan_normalizacion.pdf).

Azkenik, katalanari dagokionean, Generalitat de Catalunya-k zenbait kanpaina jarri izan ditu martxan katalan hizkuntza sustatzeko asmotan, hala nola, “Català i empresa. Ja estàs al dia?” izeneko programa, enpresaren testuinguruan katalanaren erabilera sustatzea helburu duena. Beste alde batetik, “En català, també és de llei” izenaz ezaguna den kanpaina, zeinek alor judizialean duen jomuga nagusia. Kirol arloan ere existitzen da plan zehatz bat, “Mou-te en català” izena duena eta helburu nagusiak entitateetan eta kirol guneetan katalanaren presentzia areagotzea eta bere ezagutza kirolarien eta profesionalen artean handiagotzea dira (Generalitat de Catalunya, 2013).

1.2 Hizkuntza minorizatuen lanketa eskola eremuan

Hainbat adituren esanetan, eskolaren ekarpena ezinbestekoa da hizkuntza gutxitu bat indartzerako orduan (Manterola, Berasategi & Idiazabal, 2011). Beste batzuen iritziz, ordea, eskolan erabiltzearekin ez da nahikoa hizkuntza bat salbatzeko, are gehiago, eskola ez dela hizkuntza bat irakasteko lekurik aproposena defendatzen dute. Hala ere, zentzuzkoa da hizkuntza zehatz bat transmititzea, haren kultura ezagutarazteko ezinbestekoa baita (Martí eta besteak, 2005).

Historian zehar hizkuntza minorizatuen inguruan emandako gertaerei eta aldaketei begirada bat botaz gero, ikus daiteke eskolak hizkuntza handiak hartu dituela kontuan, batez ere goi-mailako hezkuntzan, eta hizkuntza txikiak alde batera utzi dituela (Martí eta besteak, 2005).

Manterolak et al. (2011) aditzera eman dutenez, XX. mendean ikuspuntua aldatu eta gutxietsita zeuden hizkuntzei indarra emanez joan dira, erakunde politikoaren eskutik eta baita herri mugimenduen ahaleginari eta hauspoari esker, honek, eskola elebiduna eta eleanitza sustatzeari bide emanez. Martí eta besteren lanean adierazi den legez “Hezkuntza zientzien garapenarekin, hezkuntzarako hizkuntzalaritzarekin garapenarekin bereziki, frogatzen ari da, gainera, ikasleei heziketa elebidun eta eleanitza ematea onuragarria dela, ez bakarrik gizabanakoaren eta gizartearen garapenerako, baita hezkuntza sistemarentzat berarentzat ere” (2005:216).

Ruiz-en esanetan (2009), 1980ko hamarkadatik aurrera, denboraren poderioz gutxituta egondako hizkuntzak berreskuratzeko programak hedatzen hasi ziren munduko eskualde ezberdinetan. Programarik hedatuena murgiltze-programa izenarekin ezaguna da. Programa hau bigarren hizkuntza irakasteko pedagogia-eredu bat da, hizkuntza eta kultura nagusiko ikasleei zuzendua, batik bat. Helburu nagusia, komunikazio-gaitasuna bai lehenengo hizkuntzan baita bigarren hizkuntzan lortzea da, bietako batean ikasteak bestean komunikazio-gaitasuna galtzea ekarri gabe. Programa honetan, ikasleek ez dute eskolako hizkuntza ezagutzen, abiapuntu nagusia hau izanik, eta hizkuntza berria eskolatze-aldiko lehen momentuan sartzen da.

Aipaturiko murgilketa-programaz gain, badago hizkuntza minorizatuen irakaskuntza kontuan hartzen duen beste eredua, iraupen-programa izendatutakoa. Manterolak

et al. (2011) programa honen inguruan zenbait hitz elkarbanatu dituzte. Hauen esanetan, helburu nagusia ez da haurra bere ama hizkuntzan, kasu honetan, hizkuntza gutxituan, elebakar izatea, baizik eta honetaz gain hizkuntza nagusia ere ikastea. Hizkuntza gutxitua babesten du programa honek, hizkuntza nagusiaren irakaskuntza barnean hartzen duelarik.

1.3 Ikus-entzunezko baliabideak hezkuntzan: dokumentala

Ikus-entzunezko komunikabideen inguruan definizio zehatza ematea zaila dela aipatu dute Ambròs-ek eta Breu-k (2011). Horregatik, Europako Batzordeak proposatzen duen definizioa elkarbanatu dute.

La educación en comunicación audiovisual o en medios es la habilidad de acceder, comprender, analizar y evaluar críticamente los diferentes aspectos y contenidos de los medios de comunicación, y comunicarse en una variedad de contextos. Se refiere a todos los medios de comunicación, junto con la televisión y el cine, la radio y la música grabada, los medios impresos, Internet y el resto de tecnologías digitales que están creciendo. (Ambròs, Breu, 2011: 54-55)

Baliabide mota honek hezkuntzan eduki duen garrantziari erreparatuz gero, Ambròs eta Breuk (2011) diotenaren arabera, 60ko hamarkadako "Ley de Ordenación General Básica"-n ez zegoen presente. 1990ean, LOGSE (Ley de Ordenación General del Sistema Educativo) ezartzean, batzuentzat ikus-entzunezko hezkuntza "legeztatzeko" aukera zabaldu zen, izan ere, 4 aukera aipatu baitziren hezkuntza mota hau eskolara eramateko:

1. Beharrezko kreditutzat.
2. Curriculumaren alderdi instrumental batzuen barneko bloke berezitzat.
3. Zeharkako ardaztzat.
4. Kreditu aldakortzat.

Beharrezko kreditutzat ez zen irakasgai batean ere agertu, nahiz eta teknologia irakasgaitzat sartu zen bigarren hezkuntzan.

LOE indarrean jarri zutenean (Ley de Ordenación Educativa), 2006.urtean, ikus-entzunezkoak eskolan sartzeko bi aukera proposatu ziren. Alde batetik, oinarrizko kompetentziatzat, eta bestalde, alderdien eduki propietzat, LOGSE-n gertatu zen bezala. Hala ere, LOE-n deskribatu ziren 8 kompetentzietan ez da agertzen era esplizituan kompetentzia mediatikoa.

Teknologia berriek eta hedabideek inpaktu handia eduki dute kulturaren eta gizarte alor guztietan, honenbestez, hezkuntza alorrean ere. Baliabideen eraldaketan inpaktua edukitzeaz gain, irakaskuntzan erabiltzen diren materialak eta errekurtsuak ere eraldatu egin dira. Horrek, eskolaren zein irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen kontzeptualizazioan eraldaketa ekarri du (Pérez, 2004).

Ikus-entzunezko teknologien helburu nagusiak honakoak dira: etorkizuneko hiritarrak mezuen igorle-hartzaile gisa prestatzea, gaitasun elkarreragileak indartzea eta adierazpen gaitasunaren irakaskuntza eta ikaskuntza sistema sinboliko ezberdinetan oinarritzea (Pérez, 2004).

Bestalde, Ambròs eta Breuk (2011) ikus-entzunezko heziketaren inguruan adierazi dute ikasleentzat hezkuntza erakargarria, berritzailea eta eraginkorra eskaintzen duela eta bideratuta dagoela mundu garaikideko gaitasunak lantzerako.

Bazalgette (1991) ideia honekin bat dator, izan ere, autore honek hedabideen garrantzian enfasia egin baitu. Gaur eguneko curriculumak indartzeaz gain, ikasleek baliabideak era koherente batean ulertzeko irizpide kritikoa eta sortzailea garatzeko baliagarria dela azpimarratu du.

Ikus-entzunezko baliabideetako bat dokumentala da. Sellés (2008) dokumentala definitzen saiatu da, eta hau da egin duen ekarpena:

Las dificultades teóricas, incluso, llegan a la propia definición de documental y los autores que escriben a fondo sobre el tema dedican muchas páginas a esta cuestión. Casi todas las definiciones dicen que el documental, mediante una interpretación creativa de la realidad, nos aporta conocimiento y nos ayuda a comprender la condición humana (Sellés, 2008:7)

Dokumentalak izaera informatiboa eta didaktikoa du, alde batetik, gizarteak jasaten dituen aldaketan jarraipena egitea ahalbidetzen duelako, eta bestalde, egunerokotasuneko bizitzak historiaren bideak nola igarotzen dituen deskubritzea errazten baitu (Breu, 2010).

2. Proposamen didaktikoa

Sortutako baliabidea Estatu Espainoleko hizkuntza minorizatuak ezagutaraztera bideratuta dagoen dokumental bat da. Hementxe dago ikusgai: <https://www.youtube.com/watch?v=eqpvMiZ29Z4&spfreload=5> Dokumental horrekin batera, jardueren koaderno bat txertatu da, bertan hiru fase ezberdin bereiztuta daude. Faseak honakoak dira: dokumentala ikusi aurretik, dokumentala ikusi bitartean eta azkenik, dokumentala ikusi ostean. Proposamen hau lehen hezkuntza etapako 3.zikloko ikasleei bideratuta dago, 6.mailako ikasleei, hain zuzen ere.

2.1 Heziberri 2020 oinarrizko hezkuntza curriculumarekin lotura

Atal honetan, sortutako baliabidearekin Heziberri 2020 oinarrizko hezkuntza curriculumean lantzen diren oinarrizko zehar konpetentziak, oinarrizko diziplina barneko konpetentziak eta etapako helburuak aipatuko dira. Aipatu bezala, Heziberri 2020 abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua da, eta bertan Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen den Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaz zehazten da.

2.1.1 Oinarrizko zehar konpetentziak

Oinarrizko zehar konpetentziak, edo beste era batean esanda, konpetentzia orokorrak, osotasunean ulertu behar dira, hau da, denek dute garrantzi bera. Hona hemen sortutako baliabidearekin lantzen diren oinarrizko zehar konpetentziak:

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia

Sortutako baliabidea, baliabide digitala izanik, dokumentala, hain zuzen, modu implizituan lantzen da konpetentzia hau. Hitzen bidezko komunikazioan oinarrituta dago, bereziki, baina hitzik gabeko kodeak ulertzera ere bideratzen du, dokumentalean elkarriketatutako diren pertsonen keinuak eta jarrerak interpretatuz.

2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

Konpetentzia honek bere baitan hainbat osagai ditu, eta horietako bat honako hau da:

- Informazioa bilatzea, aukeratzea, gordetzea eta berreskuratzea hainbat informazio-iturritatik (informazio-iturri inprimatu, ahozko, ikus-entzunezko, digital eta bestelakoetatik), eta iturri horien egokitasuna ebaluatzea da.

Sortutako baliabidea informazio iturri gisa har daiteke, hala nola, ikus-entzunezko baliabidetzat. Honenbestez, ikasleek bertatik informazioa jaso dezakete. Gainera, pentsamendu kritikoa lantzen da, izan ere, dokumentalean aipatutako informazioa interpretatzen baita.

3. Elkarbizitzarako konpetentzia

Dokumentalean zehar elkarriketatuen sentimenduak eta pentsamenduak azaleratzen dira. Hizkuntza eskubideei buruz mintzo dira, eta honek, printzipio etikoak lantzerantz bideratzen du.

4. Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Pertsona bakoitzari erreferentzia egiten dio konpetentzia honek, hau da, nor bere buruarekiko duen kontzeptuari. Bizitzako egoera ezberdinak islatzen dira sortutako baliabidean, eta horrek, pertsona bezala zer nolako ekintzak burutu behar dituen hausnartzera bultzatzen du ikaslea, dokumentalean lantzen den gaiarekin lotura dutenak, bereziki.

2.1.2 Oinarrizko diziplina barneko konpetentziak

Diziplina barneko konpetentziak eskuratzea ezinbestekoa da norberaren errealizatorako, garapena erdiesteko, herritar aktiboa izateko eta gizarteratzeko, besteak beste. Konpetentzia horiek lortzeko beharrezko baliabideak era sistematizatuan ikasten dira, irakasgaietako adierazpenezko ezagutzen, prozeduren eta jarreraren bitartez. Hona hemen sortutako baliabidearekin lantzen diren oinarrizko diziplina barneko konpetentziak:

1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia

Sortutako baliabidean hainbat hizkuntza ezberdin entzun daitezke, lau, zehatzak izateko. Era berean, kultura ezberdinak aipatzen dira, gure gizartean kultura bat baino gehiago dagoela ezagutzera emanez. Gainera, hitzezko zein idatzizko komunikazioa lantzen da, alde batetik, elkarrizketatuak esaten dutena entzunez, eta bestalde, azpitituluetan idatzitakoa irakurriz.

2. Matematikarako konpetentzia

Sortutako baliabidean zehar, datu matematikoak ematen dira. Honek, ikasleek duten ezagutza matematika praktikan jartzeko aukera ematen du, gizartean dagoen egoera zehatz bat zifrazko datuekin interpretatu ahal izateko.

3. Konpetentzia sozial eta zibikoa

Dokumentala gizartearen parte baten isla izanik, ikasleak bizi duen mundua ezagutzeko aukera izango du. Modu honetan, gizartearekiko duen ikuskera zabaltzeko, pertsonak dituen giza eskubideen berri edukitzeko eta iraganean edo gaur egun bizikidetzatza gatazkak izan dituzten gizarte taldeen berri edukitzeko aukera ematen da. Horrez gain, munduaren alderdi sozialak eta kulturalak ezagutuko ditu, eragile aktibo bilakatzuz.

2.1.3 Etapako helburuak

Jarraian, oinarrizko diziplina barneko konpetentziekin loturik, lantzen diren etapako helburuak adieraziko dira taula baten bidez.

OINARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO ETAPAKO HELBURUAK KONPETENTZIAK	
Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.	Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.

	<p>Eskolako eta norbera bizi den inguruneko hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzea, aniztasun horrekiko jarrera positiboa barneratzeko, eta hizkuntzak komunikaziorako baliabide eraginkortzat eta kultura-ondaretzat hartzea, portaera linguistiko enpatikoak garatzeko eta euskarara eguneroko bizitzan erabiltzeko.</p>
	<p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa lortzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.</p>
<p>Matematikarako kompetentzia</p>	<p>Matematikako ezagutza aplikatzea eguneroko bizitzako gertaerei eta egoerei buruzko informazioak eta mezuak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, eta beste ezagutza-arlo batzuetan erabilgarriak direla jakitea.</p>
	<p>Matematika kulturaren parte dela balioestea, bai ikuspegi historikotik bai gaur egungo gizartean duen zereginagatik, eta eskuratutako Matematikako kompetentziak aplikatzea, zenbait fenomeno sozial analizatzeko eta balioesteko; esate baterako, kultura-aniztasuna, ingurumena errespetatzea, osasuna, kontsumoa, genero-berdintasuna edo bizikidetzaren baketsua.</p>
<p>Kompetentzia sozial eta zibikoa</p>	<p>Ezaugarri bereizgarriak dituzten gizarte-eta kultura-taldeetako kide direla ohar-tzea eta balioestea, norberaren kultura-ezaugarri bereizgarriak eta beste talde batzuekiko desberdintasunak aintzat</p>

	hartzea, eta gainerako identitate, kultura eta herriekiko errespetua izatea eta giza eskubideak errespetatzea ezinbestekoa dela ohartzea.
	Gizakiak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean dituen esku-hartzeen zenbait adibide ikusi eta kritikoki aztertzea, iraunkortasunaren ikuspegitik, eguneroko bizitzan ingurumena eta ondare historikoa eta kulturala babesteko, berreskuratzeko eta kontserbatzeko jarrera izateko.
	Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolaketa nolakoa den eta zer erakundek osatzen dituzten jakitea, baita Europar Batasunaren eginkizuna ere. Biztanleriaren ezaugarriak, migrazio-mugimenduak, eta kultura-, gizarte- eta hizkuntza-aniztasuna aztertuko dira, aintzat hartzeko eta desberdintasunak errespetatzeko.

2.taula: Oinarrizko diziplina barneko kompetentziak eta etapako helburuak (Heziberri 2020)

2.2 Baliabidea sortzeko prozedura

Jorratu beharreko gaia “hizkuntza minorizatuak eskolan” izanik, horiek islatuko zituen dokumental bat sortzea erabaki zen, Estatu Espainoleko hizkuntza minorizatuetan arreta jarritz. Horrez gain, dokumentalarekin lotura zuzena zuen jardueren koaderno osatzea erabaki zen.

Dokumentala egiten hasi baino lehen, eskura zeuden baliabide pertsonal zein materialak kontuan hartu ziren. Alderdi honi erreparatuta, dokumentalean agertuko ziren pertsonekin kontaktuan jarri zen, 4 pertsonarekin, hain zuzen, proposamena aurkezteko eta parte hartzeko prest egongo ziren galdetzeko. Guztien erantzuna baiezkoa izan

zen. Aipatu beharra dago, horietako bat ez zela ezaguna, eta lan honen bidez ezagutuko zela. Honetaz gain, beharrezko baliabide materialak lortzera bidean, beste zenbait pertsonarekin kontaktuan jarri zen. Hasteko, kamera on bat lortzea ez zen lan erraza izan, inguruko inork ez baitzuen halako bat. Azkenean, lortu egin zen, baina kostata. Unibertsitatean ikasten ari den pertsona batek utzitako *Canon* markakoa erabili zen. Horretaz aparte, tripodearen garrantzia ezinbestekoa zen, beraz, beste bi pertsonarekin kontaktuan jarri zen baliabide hau eskuratzeko, bat Barakaldoko udaletxeko funtzionarioa eta bestea lehen hezkuntzako graduako ikaslea. Azkenik, mikrofono baten presentzia ere ezinbestekoa zela ondorioztatu zen, audioaren garrantzia handia baita dokumentaletan. Beraz, ikus-entzunezko ikasketak burutu dituen pertsona batekin hitz egin zen.

Behin bi alderdi garrantzitsu hauek lotuta, pertsona bakoitzari egingo zitzaizkion galderetan pentsatu zen, hau da, dokumentalaren gidoia idatzi zen. Gidoi hartan, galderak egoteaz gain, pertsona eta testuinguru bakoitzean zer grabatu zehaztu zen, azken hau “story board” bati esker irudikatuz (ikus. 1. eranskina). Gerora, oso lagungarria den materiala da “story board” izeneko irudi bidezko gidoia, muntaia egiterako orduan dena zehaztuta baitago. Gidoia bukatutakoan, elkarrizketatuei bidali zitzaien, galderen nondik norakoak zeintzuk ziren jakiteko.

Dokumentalaren grabaketarekin hasi zen eta horretarako lehendabizi Bartzelonara bidaiatu zen, bertan Jan González, 24 urteko mutil katalana eta Juan Pérez, 23 urteko mutil galiziarra elkarrizketatzeko. Elkarrizketa hauetan ezinbestekoa izan zen aurretik landutako galdera-sorta. Bartzelonara bidaiatu ondoren, Asturiasera bidaiatu zen. Bertan, Xandru Martino 51 urteko gizon asturiarra elkarrizketatu zen eta hemen ere, ezinbestekoak izan ziren gidoian idatziriko galderak, horiek hartu baitziren oinarritzat. Azkenik, Euskal Herrira bueltatuz, Urtza Uranga, 43 urteko emakume euskalduna elkarrizketatu zen.

Elkarrizketa eta testuinguru guztiak grabatu ostean muntaiaren ordua iritsi zen. Muntaia egiten hasi aurretik, elkarrizketa guztiak, euskarakoa izan ezik, euskaratu ziren (ikus. 2. eranskina). Modu honetan, ikusleak nahiz eta katalana, asturiera eta galiziera ez ulertu, euskaraz irakurtzeko aukera izan dezake, azpigituluen bidez. Muntaia egiteko lehendabizi grabatutako irudi guztiak berrikusi ziren. Ondoren, informazio interesgarri-

enaren hautaketa egin zen, audio eta bideo bakoitzeko zein segundotik zein segundora zehatz mehatz hautatuz. Gero, irudiak kalitatearen arabera sailkatu ziren ondoren onenak aukeratzeko asmoz. Azkenik, faltan zeuden irudien bilaketari ekin zitzaion. Horretarako, bi artxibategi libre erabili ziren, bertatik audioak eta irudiak berreskuratzeko helburuarekin. Artxibategi horien izena “*archive.org*” eta “*pixabay*” dira. Horrez gain, “Youtubeko” zenbait irudiz baliatzeko, kanaletako jabeei mezuak bidali zitzaizkien, irudien erabileraren baimen eske (ikus. 3. eranskina). Hauexek dira erabilitako youtubeko kanalen izenak: Txoko musikala, Banda GRibesella, ALBE (Algortako Bertsolari Elkar-tea) eta [zaixega] Folk Dances Around the World. Honenbestez, dokumentalean ageri diren irudi batzuk, eta bereziki, musikak, artxibo libretik berreskuratutakoak edota “Youtubetik” harturikoak dira, beti ere baimena izanda.

Muntaia egitera abiatu aurretik, gidoi orokor bat egin zen, bertan audio eta irudi bakoitzeko segundo eta minutu zehatzak islatuz. Modu honetan, muntaia erraztu zen.

Dokumentalaren muntaia egiteko *Adobe Premiere CC* programa erabili zen.

Azkenik, behin dokumentalaren muntaia bukatuta, Youtubeko kanalera igo zen, bertan edozein pertsonak ikusgai izan dezan.

2.3 Proposamenaren atalak

Proposamenak bi atal nagusi ditu. Alde batetik, dokumentala, eta bestalde, jardueren koadernoak.

2.3.1 Dokumentala

Sortutako baliabidea, kasu honetan, dokumentala aurrera eramateko lanketa eremu ezberdinak jorratu dira. Hona hemen kronologikoki zerrendatuta:

- Gidoia sortu.
- “Story board”-a egin.
- Elkarrizketak grabatu.
- Paisaiak grabatu.
- Muntaia egiteko bideoen eta audioen gidioa egin.

Horiek izan dira proposamena osotasunean burutzeko erabilitako atal nagusiak.

Jarraian, dokumentalean zehar azaltzen denaren inguruko informazio laburbildua aurkeztuko da.

Dokumentalaren izenburua "Hizkuntza gutxituen erronka" da. Bertan, 4 hizkuntza minorizatu ezberdin lantzen dira, hala nola, euskara, galiziera, asturiera eta katalana.

Hasteko, dokumentalari sarrera emanez, hizkuntza bat zer den definitu da, ikuslea testuinguruan kokatzeko. Ondoren, lehenengo elkarrizketa txertatu da, kasu honetan, euskararen ingurukoa. Atal ezberdinak landu dira lehenengo elkarrizketa honetan:

- Euskararen egoera gaur egun.
- Instituzioen lana euskararen inguruan.
- Elkarrizketatuaren egunerokotasuneko egoera.
- Euskal kultura.

Jarraian, galizieraren inguruko elkarrizketa txertatu da. Bertan honako atal hauek aipatu dira:

- Galizieraren egoera gaur egun.
- Instituzioen interesa galizieraren inguruan.
- Eskola ereduak.
- Kultura galiziarra.

Honen ostean, katalanari eginiko elkarrizketa txertatu da. Honakoak dira jorratutako atalak:

- Katalanaren egoera gaur egun.
- Administrazio publikoak katalanari ematen dion garrantzia.
- Kultura katalana.

Metodologia bera jarraituz, asturieraren ingurukoa gehitu da:

- Asturieraren egoera gaur egun.
- Administrazio publikoetan asturierak duen garrantzia.
- Kultura asturiarra.

Dokumentalarekin bukatzeko, zenbait esaldi esanguratsu entzun daitezke, denak hizkuntza ezberdinetan.

2.3.2 Jardueren koaderno

Jardueren koaderno hau, lehen hezkuntzako hirugarren zikloko 6.mailako ikasleei bideraturikoa da eta dokumentalarekin batera lantzeko proposatzen da. Hori fase ezberdinetan banatuta dago: dokumentala ikusi aurretik egiteko jarduera, dokumentala ikusi bitartean egiteko jarduera eta bukatzeko, dokumentala ikusi ondoren egitekoa.

2.3.2.1 Dokumentala ikusi aurretik egiteko jarduera

Atal honetan proposatu den jarduera, izenburuan irakurri daitekeen moduan, dokumentala ikusi aurretik burutzekoa da (ikus. 4. eranskina). Ikasleak herriko azterketa soziolinguistikoa egitera bideratuko dira. Horretarako, taldekatu egingo dira eta irakasleak txantilo bat banatuko die, eta bertan zenbait egoera aurkeztuko zaizkie. Ikasleen eginkizuna, egoera horiek praktikan jartzea izango da, herrian zehar, eta ondoren, emaitzak jasoko dituzte. Emaitzak, ondorio gisa parrafo batean idatziko dituzte, eta behin taldeka ariketa hau egin dutela, talde osoan elkarbanatuko dituzte. Jarduerarekin bukatzeko, talde handian, herri osoko ondorio orokor bat idatziko dute, denen parte hartzea sustatuz.

2.3.2.2 Dokumentala ikusi bitartean egiteko jarduera

Jarduera hau fitxa baten bidez burutzekoa da (ikus. 5. eranskina). Zenbait irudi ageri dira fitxaren ezkerreko aldean, eta eskumako aldean, aldiz, euskara, katalana, galiziera eta asturiera ageri dira idatzirik. Ikasleek irudi bakoitza dagokion hizkuntzarekin lotu beharko dute.

Jarduera aurrera eramateko zailtasunak edukiz gero, ordenagailua erabiltzeko aukera edukiko dute ikasleek, beharrezko informazio bilketa burutzeko.

2.3.2.3 Dokumentala ikusi ondoren egiteko jarduera

Hirugarren eta azken jarduera hau, dokumentala ikusi ondoren egiteko proposatu da. (ikus. 6. eranskina).

Ikasleak 4 pertsonako taldeetan eseriko dira, eta talde bakoitzak 5 testu zati edukiko ditu mahai gainean. Honetaz, gain, ikasgelaren erdialdean mahai handi bat egongo da, eta bertan 5 testu zati hauekin loturiko 5 irudi ezberdin aurkituko dira.

Ikasleek, testu zatiak irakurri eta ondo ulertu beharko dituzte. Behin ariketa hau burututa, erdialdean dagoen mahaira hurbildu eta bertan, testu zati bakoitzari dagokion irudia hartuko dute, euren usteetan oinarrituz.

5 testu zatiei dagozkien irudiak hautatuta dituztela, talde bakoitza bere mahaira itzuliko da eta denen artean egiaztatuko da erantzun egokia zein den. Ondoren, talde bakoitzak, mural bat osatuko du irudia dagokion testu zatiarekin batera itsatsiz.

3. Ondorioak

Azken atal honetan, lanak osotasunean eduki duen prozeduraren inguruko ondorioak aurkeztuko dira. Gaia zein den kontuan hartuta, kasu honetan, hizkuntza minorizatuen lanketa eskolan, zenbait helburu zehaztu ziren eskolako umeei begira, hala nola, hizkuntza minorizatuen egoera zein den aztertzea, ezagutza horretan sakontzea, hizkuntza hauekiko kontzientzia lantzea eta gutxituak diren hiztunekiko enpatia sortzea.

Ezarritako xede horiek betetzera bidean, baliabide didaktiko baten proposamena burutu da, "hizkuntza gutxituen erronka" izena hartu duen dokumentala sortuz, hain zuzen. Ikus entzunezko baliabideen esangura eta garrantzia erreferentziatzat hartu da, zenbait autoreren hitzetan oinarrituz, horregatik, gaur egungo hezkuntza sisteman presente dauden baliabideetara egokitu da. Garrantzitsua da zehaztea dokumental hau lehen hezkuntzako 6.mailara bideratuta dagoela, lantzen diren gaiak eta hiztegiaren zailtasun maila, etapa honen azken ziklora egokituta baitago.

Dokumentala sortzeaz gain, azken baliabide honekin batera lantzeko zenbait jarduera proposatu dira, denak "jardueren koaderno" batean bildurik. Lanean zehar aipatu bezala, hiru fasetan bereizi da koaderno hau: dokumentala ikusi aurretik burutzeko jarduera, dokumentala ikusi bitartean burutzekoa, eta azkenik, ikusi ondoren egitekoa. Koaderno hau ere, dokumentala bezala, lehen hezkuntzako 6.mailako ikasleei zuzendutakoa da.

Proposatutako baliabidea eta horrekin batera sortutako jarduerak, etorkizun batean martxan jartzea ideia ona izango litzateke, alde batetik, ikasleek euren inguruan bizirik dauden hizkuntzen berri edukitzeko eta aurkitzen diren egoeran sakontzeko, eta bestalde, sortutako baliabidea probetxuzkoa den ala ez egiaztatzeko. Lantzen diren hizkuntza gutxituak lau badira ere, ikasleen erantzuna zein den ikustea interesgarria izango litzateke, gerora, lanketa hori eremu zabalago batera eramateko, hau da, hizkuntza gutxitu gehiagori buruzko informazioa helarazteko.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi nizkioke lan hau aurrera eramaten lagundu duen pertsona orori. Dokumentalean parte hartu dutenei; Xandru Martino (Asturias), Urtza Uranga (Euskal Herria), Jan González (Katalunia) eta Juan Pérez (Galizia) eta dokumentala aurrera eramateko beharrezko materiala utzi didatenei; Saioa Iriarte (kamera), Leire Sarasola (kameraren objetiboak), Aitor Zubiaga (tripodea), Mikene Ferreira (tripodea eta kamera), Xabi Zubiaga (bidaien laguntzailea), eta azkenik, Aitziber Onaindia (dokumentalaren edizioa).

4. Erreferentzia bibliografikoak

Ambròs, A., Breu, R. (2011). *Educar en medios de comunicación. La educación mediática*. Bartzelona: Graó.

Asturnews. (d.g). Plan para la normalización social del asturiano 2005-2007. *Asturnews.com*, 2017-03-26an hartuta, hemendik: http://www.asturnews.com/publicidad/plan_normalizacion.pdf

Bazalgette, C. (1991). *Los medios audiovisuales en la educación primaria*. Madrid: Morata, S.A.

Breu, R. (2010). *El documental como estrategia educativa*. Barcelona: Graó.

Covadongako aintzirak. (d.g). *Wikiwand-en*. 2017-05-02an hartuta, hemendik: http://www.wikiwand.com/eu/Covadongako_aintzirak

Don quijote. (d.g). Tió de nadal. *Donquijote.org*, 2017-04-22an hartuta, hemendik: <http://www.donquijote.org/cultura/espana/sociedad/fiestas-y-celebraciones/tio-nadal>

Etxeberria, F. (2002). *Elebitasuna eta hezkuntza euskararen herrian*. Donostia: Ibaeta Pedagogia.

Euskararen Aholku Batzordea. (2015). *Euskara sustatzeko ekintza plana*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritzak. (d.g). LanHitz programaren sarrera. *Euskadi.eus*, 2017-03-23an hartuta, hemendik: <http://www.euskadi.eus/lanhitz/web01-a2sekpri/eu/>

Eusko Jaurlaritzak. (d.g). Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiaren V. plangintzaldia. *Euskadi.eus*, 2017-03-23an hartuta, hemendik: <http://www.euskadi.eus/5-eusko-jaurlaritzan-euskararen-erabilera-normalizatzeko-plan-nagusia/web01-a2euadmi/eu/>

Eusko Jaurlaritzak. (2015). Feria de Santo Tomás. *Turismo.euskadi.eus*, 2017-05-01ean hartuta, hemendik: <https://turismo.euskadi.eus/es/agenda/feria-de-santo-tomas/aa30-12375/es/>

Generalitat de Catalunya. (2017). Campanyes de foment de la llengua. *Llengua.gencat.cat*, 2017-03-26an hartuta, hemendik: http://llengua.gencat.cat/ca/serveis/informacio_i_difusio/campanyes

Gobierno del Principado de Asturias. (1998). Boletín oficial del Principado de Asturias. *Sede.asturias.es*, 2017-03-27an hartuta, hemendik: <https://sede.asturias.es/bopa/disposiciones/repositorio/LEGISLACION31/66/4/DA702C59097F4CD3AEC83E99CD3EA4EF.pdf>

González, T. (2015). "Patrimonio histórico español del juego y del deporte" Juegos tradicionales de galicia. *Museodeljuego.org*, 2017-05-01ean hartuta, hemendik: museodeljuego.org/wp-content/uploads/JT-DE-GALICIA.docx

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2016). 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-16). 2017-04-22an hartuta, hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberrri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osa.pdf

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (2016). Zer da hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloa?. *Protokoloa.eus*, 2017-03-14an hartuta, hemendik: http://protokoloa.eus/wp-content/uploads/2016/04/triptiko_FAQ_eu.pdf

Hizkuntza eskubideen behatokia (d.g). Hizkuntza eskubideen deklarazio unibertsala. *Hikhasi.eus*, 2017-02-25ean hartuta, hemendik: <http://www.hikhasi.eus/docs/55/DEKLARAZIOA.pdf.pdf>

Joseba Sarrionandia. (d.g). *Wikipedia-n*. 2017-05-01ean hartuta, hemendik: https://eu.wikipedia.org/wiki/Joseba_Sarrionandia

Manterola, I., Berasategi, N., & Idiazabal, I. (2011). *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Martí, F., Ortega, P., Idiazabal, I., Barreña, A., Juaristi, P., & Junyent, C. et al. (2005). *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.

- Padilla, L. & Recarte, A. (2015). Hizkuntza aniztasuna. Hizkuntza-eskubideak hezkuntzaren alorrean. *Kriminologia Ikasten. Irakaskuntzarako Aldizkaria*, 2017-02-25ean hartuta, hemendik: <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/KI/article/view/15289>
- Pérez, M^a Amor. (2004). *Los nuevos lenguajes de la comunicación. Enseñar y aprender con los medios*. Bartzelona: Paidós.
- Real Academia de la Lengua Vasca. (2016) *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Bilbo, Euskal Herria: Autor.
- Real Academia Galega. (d.g). O galego hoxe. *Academia.gal*, 2017-03-18an hartuta, hemendik: <http://academia.gal/estatus-actual>
- Redacción de Noticias Valdeorras (2016). Primer plan para dinamizar el uso del gallego entre la juventud. *Creandotuprovincia.es*, 2017-03-21ean hartuta, hemendik: <http://www.creandotuprovincia.es/primer-plan-para-dinamizar-el-uso-del-gallego-entre-la-juventud.htm>
- Ruiz, U. (2009). *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Sellés, M. (2008). *El documental*. Barcelona: UOC.
- Uranga, B., Izagirre, E., Idiazabal, I., Barreña, A., & Amorrortu, E. (2004). Europako hizkuntza gutxituak: datu orokor batzuk. *Euskonews.com*, 2017-03-17an hartuta, hemendik: <http://www.euskonews.com/0243zbk/gaia24303eu.html>
- Zarraga, A., Coyos, J., Hernández, J., Joly, L., Larrea, I., & Martínez, L. et al. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.